



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko ekainaren 5a

82. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/PES-00200. Galdera, jakiteko ea aurreko urteetan zenbat pertsona utzi diren itxaron-zerrendetatik kanpo. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-24/PES-00201. Galdera, Bertizko Jaurerriko Aizkolegi Jauregia birmoldatu edo leheneratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-24/PES-00202. Galdera, jakiteko ea nor osatu zuen Los Angelesera joan zen Nafarroako Gobernuaren ordezkaritza, *Robot Dreams* filmaren taldeari babes instituzionala emateko. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-24/PES-00203. Galdera, boluntariotzaren arloan egon litekeen genero-arrakalari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-24/PES-00204. Galdera, Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea eta estatuko 7/2023 Legea uztartzeko gida errazari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-24/PES-00205. Galdera, Cascanteko osasun-etxe berria egiteko proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-24/PES-00206. Galdera, Cascanteko osasun-etxe berriaren proiektuan izandako atzerapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-24/PES-00208. Galdera, zaintzen aldeko ituneko 2023ko ahalduntze programetan izena emateko inprimakietako irisgarritasun-neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-24/PES-00209. Galdera, Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planten herri-lurrak desafektatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-24/PES-00210. Galdera, Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planten herri-lurrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-24/PES-00211. Galdera, Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planten herri-lurrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-24/PES-00212. Galdera, Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planten herrilurren defentsan Kasedako Udalak emandako erantzunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

- 11-24/PES-00215. Galdera, gizarte-bazterkeria larria dela-eta Nafarroan izapidetutako errenta bermatuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-24/PES-00216. Galdera, NEKP Basoaren proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- 11-24/PES-00219. Galdera, BSH electrodomésticos España, SA enpresak jaso dituen laguntza eta onura fiskalei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- 11-24/PES-00220. Galdera, NEKPren eta beste sozietate publiko batzuen webguneetako gardentasun-atalei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- 11-24/PES-00221. Galdera, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren aldaketa aztertzeko adituen mahaiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- 11-24/PES-00222. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle elkartu laguntzaileen deialdiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- 11-24/PES-00223. Galdera, AHTaren obrek Murugaingo baskoien herrixkako aztarna arkeologikoetan duten eraginari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).

F saila:
GALDERAK

11-24/PES-00200. Galdera, jakiteko ea aurreko urteetan zenbat pertsona utzi diren itxaron-zerrendetatik kanpo**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakiteko ea aurreko urteetan zenbat pertsona utzi diren itxaron-zerrendetatik kanpo, 2024ko maiatzaren 3ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako hau jakiteko: “zenbat paziente atera dira itxaron zerrendetatik kanporatze hori iragartzen duten gutunak bidaliz neurri hori hartu den urte bakoitzean?” (11-24/PES-00200). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osauneko kontseilariaren erantzuna:

Gutun hori jaso eta azterketa egiteke duten pazienteen zerrendan jadanik ez dauden pazienteek, horren kontrara jakinarazteko proaktiboki deitzen dutenak kenduta, ez dute zerikusirik bermeen legeak arautzen dituen lehenbiziko kontsultetako itxarote zerrendekin. Paziente kopuru honek onartu du alta administratiboa azken urteotan:

– 2017: 47

– 2019: 446

– 2020: 165

– 2021: 67

– 2023: 541

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Osauneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

11-24/PES-00201. Galdera, Bertizko Jaurerriko Aizkolegi Jauregia birmoldatu edo leheneratzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak Bertizko Jaurerriko Aizkolegi Jauregia birmoldatu edo leheneratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 3ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Trigo Oubiña jaunak 11-24/PES-00201 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Aizkolegi jauregia birmoldatzeari edota berreskuratzeari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

2023an enkargua egin zen “Bertizko Jaurerriko parke naturalean kokatutako Aizkolegi txaleta deritzon higiezinaren egonkortasuna bermatzeko babes minimoen memoria baloratua” egin zedin. 2024ko martxoan memoria horretan jasotako jarduketak gauzatzeko gastua baimendu zen. 2024ko apirilean lan horiek abian jarri ziren eta

gaur egun jadanik amaituta daude. Kostua 49.471,61 eurokoa izan da, obren zuzendaritza barnean hartuta.

Jarduketa hauek egin dira:

- Goiko estalki laua iragazgaiztea iragazketak ekiditeko eta ezein urik ez dela sartzen bermatzeko.

- Baoak ixtea kanpoko inor ez sartzeko eta eraikinak kalteak jasan ditzan saihesteko.

- Egoera txarrean zegoen horma indartzea, horma horren mugimendua geldiarazteko eta berori finkatzeko.

- Garbiketa orokorra, txarto kontserbatutako sabai aizunaren zati ez egonkorak kentzeko, baita eraikinaren zoruan pilatutako zikinkeria ere.

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak jarraituko du noizean behin eraikinaren egoera berrikusten, eta, kasua bada, beharrezko kontserbazio jarduketak programatuko ditu.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 21ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-24/PES-00202. Galdera, jakiteko ea nork osatu zuen Los Angelesera joan zen Nafarroako Gobernuaren ordezkartza, *Robot Dreams* filmaren taldeari babes instituzionala emateko

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakiteko ea nork osatu zuen Los Angelesera joan zen Nafarroako Gobernuaren ordezkartza, *Robot*

Dreams filmaren taldeari babes instituzionala emateko, 2024ko maiatzaren 3ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Trigo Oubiña jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakiteko Nafarroako zer ordezkari joan ziren Los Angelesera, kontseilariak eta bere kabineteko buruak gain, eta bakoitzak aurrekontu publikorako zer kostua izan zuen (11-24/PES-00202). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Ikus-entzunezko Klusterrak eta Navarra Film Commissionek akonpainamendu instituzionala eskatu zuten Los Angelesera bidaiatu zutenean, *Robot Dreams* Oscar sarietako animazio filmik onenerako proposatu baitzuten, EGEDaren eta ICEXen laguntzarekin antolatuta profesionalekin izanen ziren bilera eta topaketetara joateko. Kontseilaria bere kabineteko buru Nuria Monreal Delgadorekin batera joan zen. Horrez gain, Nafarroako ordezkari gisa joan ziren CLAVNAko presidente Miguel Iturralde, Ikus-entzunezko Klusterraren kudeatzaile Arturo Cisneros eta horren presidenteorde eta Nafarroako Animazioaren

Mahaiko koordinatzaile Carlos Fernández de Vigo, NICDOren aldetik Paula Moya eta María Rodríguez joan ziren.

Aurrekontu publikotik finantzatuta bidaia egin zutenei dagokienez, adierazi behar da kontseilariaren eta kabineteko buruaren gastuak jadanik aipatu zirela oraingo honetan PES 00202 galdera egin duen parlamentariak lehendik egindako PEI 00274 informazio eskaeran. Gastuen inguruko informazio eskaeran hizpide diren gainerakoak NICDOren aldetik bidaiatu zutenak dira, eta hauek dira beren gastuak:

- Joan-etorriak: 2.854,19 euro (ESTA, hegaldiak, Uber)
- Ostatua: 2.216,68 euro
- Mantenua: 184,13 euro

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

11-24/PES-00203. Galdera, boluntariotzaren arloan egon litekeen genero-arrakalari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak boluntariotzaren arloan egon litekeen genero-arrakalari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 3ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00203); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

1. Boluntariotzaren arloan genero-arrakalari detektatu al du Lehendakariak eta Berdintasun Departamentuak?

Bai.

2. Hala baldin bada, zertan datza arrakala hori?

Boluntariotzako ekintzaren feminizazioa, % 61 emakumeak eta % 39 gizonak, 2019ko ikerketako datuak.

Alor batean emakume gehiago egoteak ez du bermatzen berdintasun erreala dagoenik emakumeen eta gizonen artean.

Lanaren sexuaren araberako banaketa genero-estereotipoen eta rolen lotuta.

Segregazio horizontala: - Gizon gehiago babes zibilaren esparruan, COVID-19aren emergentzian eta kirolarenean. Eta, hein txikiago batean, garpenerako lankidetzan, alor komunitarioan, aisial-

dian edota ingurumenaren alorrean. Emakume gehiago hezkuntzaren esparruan, soziosanitarioan eta, sozialari dagokionez, presentzia zertxobait handiagoa ere bai.

Segregazio bertikala, emakumeen presentzia eskasa erabakiak hartzeko postu eta espazioetan.

Berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren arloko prestakuntza eskasa.

Genero ikuspegi eskasa nahiz eztabaidatua, kasu batzuetan, erakundeak kudeatu eta antolatzean.

Boluntariotzan emandako denbora, emakumeen parte hartzea noizean behingoa izanik eta gizonen ibilbidea, berriz, luzeagoa. Gizonen intentsitate handiagoa dago inplikazioan.

Emakumeen lanaldi hirukoitzarekin lotzen ahal da, lan ordainduaz gain zaintzako erantzukizunak baitituzte, eta horrek boluntariotza egiteko denbora nahiz aukera murrizten die.

Boluntarioaren profila: emakumea, adin ertainekoa, hirikoa, zaintza erantzukizunik eta goi-mailako ikasketa gabekoa.

Adina: emakume gazte gehiago eta gizon nagusi nahiz erretiratu gehiago.

Boluntarioen eta boluntariotzaren balio eta aintzatespen gutxiago, esparru feminizatua eta altruista delako eta ordainsaririk ez dagoelako, agian.

3. Zer irizpide baliatu da aukeratzeko ea III. Boluntariotza Planeko zer ekintza sartu genero-ikuspegiaren zeharkako ardatzean? Zer helburu lotu nahi da ekintza horietako bakoitzaren bidez?

- Egin diren eta III. Boluntariotza Planak jasozten dituen ikerketan ondorioak, nagusiki Nafarroako boluntariotza-ekintzari buruzkoa, aipatutakoa.

- III. Boluntariotza Planak jasotzen duen Arazoen Zuhaitza.

- Genero ikuspegia zeharkako ardatz gisa sartzeari, berdintasun printzipioak garatzen direla bermatzeko (Nafarroako III. Boluntariotza Plana (2024-2027) barne).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 17an

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-24/PES-00204. Galdera, Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea eta estatuko 7/2023 Legea uztartzeko gida errazari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea eta estatuko 7/2023 Legea uztartzeko gida errazari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 3ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00204), Lagun Egiteko Animaliak Nafarroan Babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legearen eta Estatuko 7/2023 Legearen arteko loturaren gida erraza aurkeztu eta zabaltzeko Nafarroako Gobernuak egin duenari buruz. Hona hemen Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Nafarroako Gobernuak zabalkunde kanpaina bat egin zuen, zeinarentzako gida bat eta kartelak nahiz liburuxkak egin baitziren, eta posta bidez bidali Nafarroako 272 udalerrietara eta albaitaritzako kliniketara. Halaber, bideo bat ere egin zen sare sozialen bidez zabaltzeko, eta Nafarroako Gobernuaren YouTubeko kanalean argitaratu zen.

Materiala prentsa ohar bidez argitaratu zen eduki horiek ezagutzera emateko, eta Departamentuaren webgunean ere jarri zen. Honako hauek dira bakoitzaren estekak:

<https://www.navarra.es/eu/-/prentsa-oharra/aierdi-kontseilariak-nukfko-presidentearekin-partekatu-du>

[lagun-egiteko-animalien-araudi-berriari-buruzko-dibulgazio-gida?pageBackId=363032&back=true](https://www.navarra.es/eu/nekazaritza-eta-abeltzaintza/lagun-egiteko-animaliak)

<https://www.navarra.es/eu/nekazaritza-eta-abeltzaintza/lagun-egiteko-animaliak>

Hori baino lehen, Landa Garapeneko eta Ingu-rumeneko kontseilariak eta Nekazaritza eta Abel-tzaintzako zuzendari nagusiak bilera bat izan zuten Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazio-ko ordezkariekin haiei zuzenean ezagutzera ema-teko ezagutzako eta dibulgazioko material horiek

Jarraian jaso dira egindako zabalkunde kanpai-naren kartela eta liburuxka.

KARTELA:



LIBURUXKA

1. Zer jotzen da lagun egiteko animaliatzat?

Legez, gure etxean izan dezakegun edo harekin jardueraren bat egin dezakegun animalia da:

- Txakur, katu eta hudo guztiak.
- Estatuko legeak etorkizuneko erregelamenduan zehaztutako duen zerrendan sartuta dauden etseke zein basa animaliak.

3. Prestakuntza ikastaro bat egin behar dut eta aseguru bat kontratatu txakur bat edukitzeko?

Nafarroan ez da derrigorrezkoa jabeentzat prestakuntza ikastarorik egitea eta aseguruak kontratzea. Betebehar horiek Estatuko legean daude jasota, baina oraindik ere ez da ezarri nola bete behariko diren. Horrenbestez, eta oraingotz, ez da horrelakorik bete behar; estatuko legea garatu arte iboxin behariko da hori nola egin zehazteko.

6. Edozein lepokoa mota erabili dezaket nire txakurrekin?

Harentzat kaltegarriak ez diren lepokoak bakarrik erabili ditzakezu. Debekatu duzu urikatze-lepokoak, ziridunak eta lepoko elektrikoak erabiltzea, animalia-erako kaltegarriak badira; halako lepokoak bakarrik erabili ditzake albatari profesional batek edo trebatzaile profesional batek hala zehazten duenean, betiere huraxe erabili behar bada animalia hezteko edo trebatzeko.

9. Zenbat denboraz utz dezaket nire maskota bakarrik etxean?

Beti eduki behar duzu zure maskota zure zaintzapean eta arretapean, edota beste pertsona batek hartu behar du ardurara hori. Etxetik kanpora bazoaz, ez duzu maskota bakarrik utzi behar 3 egun jarraian baino gehiagorik. Txakurren kasuan, epe hori ezin da izan 24 ordutik gorakoa jarraian.

2. Zer betebehar ditut, lagun egiteko animalia baten jabe gisa?

- Haren behar fisikoak eta jokabide-beharrak erantzutea.
- Mikrobioj bategin identifikatzea (txakurrak, katuek eta hudoak).
- Urtero amonuen aurka bertatzea (txakurrak, katuek eta hudoak).
- Urtero albitarritza-kontrola egitea.
- Haien ugalketa kontrolatzea sailhestea.
- Jokabide-arazoak dituenetan, hurra hezteak.
- Eragotziko dugu gure animaliak pertsonak, beste animalia batzuei edo natur ingurunari kalteak eragitea.
- Elkarbizitza onerako udal ordenantzak errespetatzea.

4. Nire txakurra lotuta izan dezaket?

Lotuta eduki dezakezu, baina inoiz ez modu iraunkorren. Txakurrak ez ditezke egon normalean lotuta. Solik, denbora batez lotzen ahal dira eta arrazoi justifikatua dagoenean, inoiz ez modu iraunkorren eta beti zuek edo beste pertsona batek gainbegiratutik.

7. Moztu ditzaket nire txakurraren belarriak edo buztana?

Ez, debekatu dago buztana mozteak, belarriak mozteak, ahots-kordak ebakitzea eta azkazalak edo hortzak eraruztea. Albatari profesional batek hainokak beharrezkotzat jotzen baditu albitarritza-medikuntzako arazoengatik, egin ditezke, baina beti zurratgiri bidez justifikatua.

10. Ehiztaria edo artzaina naiz. Animaliak babesteko Legea bete behar dut?

Bai, 19/2019 Foru legean araututako bete behar duzu. Estatuko legea ez zaie aplikatzen ehiza-jardueretan edo beste batzuetan parte hartzen duten animaliei, hala nola azienda zaintzeko txakurrei, artzain-txakurrei, laguntza-txakurrei, segurtasun indar eta kidegoak erabiltzen dituzten txakurrei, ehizarako txakur edo hudoak edota ehiza-hegaztiak.

Bai, Foru Legea animalia mota horiei aplikatzen zaie; horrenbestez, Nafarroan araututakoa bete behar duzu, bertan txakur horien diako berezitasunak jasotzen baitira beren funtzioetan ari direnean.

5. Legeak behartzen nau nire lagun egiteko animalia esterilizatzeraz?

Behar diren neurriak hartu behar dituzu zure animalia ez ugaltzeko zuk jakin gabe. Zure txakurra edo zure katuak kalera bere kasa zure kontrolrik gabe ateratzen bada, esterilizatu behariko duzu nahi gabeko umasiak sailhesteko. Nafarroan ez da derrigorrezkoa katuak esterilizatzea 6 hilabete bete baino lehen.

8. Zer gertatuko da, nire maskotak kumeak baditu?

Umaldiren bat etxean izan dezakezu, baina debekatu duzu kumeak saltzea. Kumeak saltzeko, hazkuntza-zentro gisa egon behar duzu erregistratua. Estatuko legeak arautuko du nola erregistratu behar den animalia-jabea hazte ez profesional gisa eta, animalia, ugaltzaila gisa. Oraingotz, hori ez da Nafarroan aplikatzen.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 21ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko konseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-24/PES-00205. Galdera, Cascanteko osasun-etxe berria egiteko proiektuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Cascanteko osasun-etxe berria egiteko proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 3ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Cascanten osasun etxe berria jartzeko proiektuari eta obrak hasteko emandako datan izandako atzerapenari buruz (11-24/PES-00205). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

– Dokumentuak taxutze aldera kontratuan ezarri zen gehieneko epea gainditu al zen? Luzapenerako aukera jasotzen al zuen kontratuak?

Bai, gainditu egin zen proiektua idazteko hasieran emandako epea.

– Kontratuan ezarritako betekizunen bat geratu al zen bete gabe eta horrek penalizaziorik ekarri al zuen?

Proiektuaren eta instalazioen definizioan Azpiegitura Zerbitzuko eta Tuterako Osasun Barrutiko teknikariek iradokitako zenbait doikuntzengatik luzatu zen entrega epea, eta atzerapen hori ezin zaio egotzi erredakzio talde horri.

– Cascanteko Udalari noiz eta nola adierazi zitzaion ezinezkoa zela proiektua betetzea?

2023ko urriaren 9an Cascanteko zentrora egindako bisitan egungo kontseilariak alkateari jakinarazi zion ezin zuela konpromiso hori hartu gobernu akordioan beste lehentasun batzuk zeudelako, baina aukera izanez gero aztertuko zela.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00206. Galdera, Cascanteko osasun-etxe berriaren proiektuan izandako atzerapenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Cascanteko osasun-etxe berriaren proiektuan izandako atzerapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 3ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Cascanteko osasun etxe berriaren obra ez lizitatze arrazoiei eta REACT funtsei buruz (11-24/PES-00206). Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Osasuneko kontseilariak PES-00147 galderari emandako erantzunaren arabera, Cascanteko

osasun-etxe berriaren proiektua "aurreikusitakoa baino gehiago" luzatu zen, eta, hori dela-eta, ezin izan zen obra lizitatu eta egin Europako REACT funtsak jaso ahal izateko moduan. Zergatik luzatu zen horrenbeste?

Proiektua aurreikusita zegoena baino gehiago luzatu zen arrazoi teknikoengatik, zeinek eragin baitzuten proiektua idazteko epea pentsatzen zena baino luzeagoa izatea. Hori guztia azaldu beharreko denbora tarte baten barruan kokatu behar da. REACTek irailaren 30a baino lehen amaitu beharreko jarduketak egitea eskatzen zuen. Hasieran, ezarritako irizpidea honako hau zen: data horretan aurkeztutako eta onartutako obra-ziurtagirien zatian amaitu gabe zeuden obra-espeditenteen gastua aurkez zitekeen. Horrek eragiten zuen lehentasunezko zatitako obra hori funts horiekin finantzatzeko moduko gisa sartu ahal izatea. Obra espeditente bat izapidetzeko ohiko eskemarekin bat, plan funtzionala prestatzeko, proiektua lizitatzeko, proiektua egikaritzeko, obra lizitatzeko eta obra egikaritzeko epeak bete behar dira. Kasu honetan, zentro horretarako ezarritako lehentasuna kontuan hartuta, asmoa zen prozesu osoa 2021eko urtarriletik 2023ko irailaren

30era bitarteko denbora tartean txertatzea; berez, nahiko zaila zen berori betetzea, baina, aurkezpenaren inguruko malgutasunaren arabera, aukera ematen ahal zuen gastuaren zati bat ziurtatzeko. Hala ere, laster baztertu zen aukera hori, hautagarritasun irizpidea izan baitzen espeditenteek guztiz amaituta egon behar zutelako. Irizpide horrek nabarmen baldintzatu zituen REACTi aurkeztu ahal izan genizkion espeditenteak.

– "Hautagarritasun, zenbateko eta epeen arabera bideragarriak ziren beste zer proiekturako" baliatu ziren Cascanteko osasun-etxe berrirako erabili ez ziren funts horiek? Horien guztien zerrenda, zenbatekoak eta administrazio-espeditente osoak barne, jaso nahi dut.

Administrazio espeditente osoen kopia erantsi da.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 20an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00208. Galdera, zaintzen aldeko ituneko 2023ko ahalduntze programetan izena emateko inprimakietako irisgarritasun-neurriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak zaintzen aldeko ituneko 2023ko ahalduntze programetan izena emateko inprimakietako irisgarritasun-neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 3ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak PES-00208 galdera egin du ida-

tziz erantzun dakion. Hona hemen horri buruz ematen den informazioa:

Gai horren inguruko 2023ko prestakuntza ekin-tzak barneko topaketa planifikatuak izan ziren. Posta elektronikoko bidez egin zen deialdia. Beraz, ezin dira erantzun planteatu diren galderak.

Azpimarratu behar da ezen, NABIk antolatutako programetan parte hartzen dutenen premiei heltzeko, irisgarritasun unibertsala funtsezko eragilea dela, oinarrizkoa eta berebizikoa jarduerak diseinatzerakoan. Ildo horretatik, jarduera inklusiboak antolatzen dira, aukera ematen dutenak pertsona guztiek benetan parte hartzeko, kontuan hartuta alderdi hauek:

- Espazioen erreserba: Programazioa espazio eta ingurune irisgarrietan antolatzen da.

• Ekintzaren garapena: Jarduera EUNATErekin batera egiten da ekintzak irisgarriak izan daitezen honako hauen bidez:

Zuzeneko azpitoluak

Denbora-begizta magnetikoa

Zeinu-hizkuntzako interpreteak

• NABIko langile berekiak Langile berekiek laguntza ematen dute pertsonak jardueretan zehar behar duten orotan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 21ean

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-24/PES-00209. Galdera, Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planten herri-lurrak desafektatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planten herri-lurrak desafektatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 3ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-24/PES-00209 galdera idatzia egin du, Zangoza I eta Zangoza II eguzki instalazioetan herri lurrak desafektatzeari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1.- Departamentuak zer erantzun dio Cásedako Udalari, Heliosolar, SL merkataritza-sozietateak sustatutako instalazio fotovoltaikoan instalaziorako herri-lurrak desafektatzeari buruzko alde aurreko kontsulta horri eta bere iritzia jakiteko eskariari dagokionez?

Kasedako Udalak, alkate udalburuaren bitartez, 2023ko irailaren 14an, Nafarroako Gobernuaren Herri-lurren Atalera bidali zuen dokumentu bat, zeinean adierazten baitzuen 2023ko abuztuaren 24an Udal horrek erabakia hartu zuela herri-lurren desafektazioa izapidetzeko onartzeko Zangoza I eta Zangoza II instalazio fotovoltaikoak

jartzeko proiektuek ukitutako partzelei dagokionez; erabaki zuten, halaber, espediente osoa bidaltzea Nafarroako Gobernuaren Herri-lurren Atalera, alde aurreko kontsulta bat egiteko eta, kasua izanez gero, jakiteko ea lagapena bideragarria zen eta Gobernuak zer iritzi zuen horretaz. Geroago, dokumentu horretan adierazten zen horri buruzko bilera bat deitu behar zela gaiari heltzeko.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak horri heltzeko bilera deitu zuen 2023ko azaroaren 9rako, 13:30erako, eta bertan izan ziren Kasedako Udalaren talde guztietako ordezkariak eta Toki Erakundearen Idazkaritzakoak, enpresa sustatzailearen ordezkariak eta Landa Garapeneko Departamentukoak. Bilera horretan Landa Garapeneko Departamentuko ordezkariak berriz ere azaldu zuten 2022ko azaroaren 15eko txostena, Kasedako Udalera eta enpresara bidalitakoa, azaltzen zuena zer aukera duten eguzki instalazioak jarri nahi diren eremuan sortu den titulartasunaren inguruko gatazka konpontzeko, eta esaten zuena txosten horretan jasotako partzelak desafektatu behar direla; Katastroan herri titulartasuneko gisa jasotako herri-partzelak eta Katastroan herri-partzela gisa agertu eta auzilari partikularra dutenak, alegia. Beraz, Departamentuak 2022ko azaroaren 15ean jadanik zuen erantzunda Kasedako Udalak egindako eskaera.

2.- Heliosolar merkataritza-sozietatearen arabera, proiektu horrek 3,44 hektarea ukituko litzuzke Zangoza I proiektuan, eta Zangoza II proiektuan, berriz, 6,57 hektarea. Osoko Bilkura horren akordioa ikusita, departamentuak ere uste al du lurzati horien desafektazioa eskatu dela?

Argitu behar da Udalak ez duela herri-lurrak desafektatzerik eskatu. Izapidetzeko onartu besterik ez zuen egin, 2023ko abuztuaren 24ko osoko bilkuran, aipatutako proiektuek ukitutako herri-ondasunak desafektatzeko eskaera. Edozelan ere, adierazi behar da Udalak orain arte bidalitako dokumentaziotik ondorioztatzen dela Kasedako Udalaren komunala katastroko titular duten lurak baino ez dituela desafektatu nahi.

3.- Departamentuak ere uste al du bi proiektu horietan ez direla herri-lur gisa sartu kalifikazio juridiko hori eduki badaukaten beste lurzati asko?

Heliosolar enpresak idatzitako "Zangoza I eta Zangoza II eguzki instalazioak jartzeko Kasedako herri-lurrak desafektatu eta lagatzeko eskaera" dokumentua ikusita (2023ko ekainekoa), hauek dira proiektuek ukitutako herri-partzelak:

"Zangoza I" eguzki instalazio fotovoltaikoa

Municipio	Pol.	Parcela	Paraje	Sup. (ha)	Partic. (%)	Sup. Comunal (ha)
Cáseda	7	65	El Saso	0,72	100	0,72
Cáseda	7	83	El Saso	0,22	100	0,22
Cáseda	7	84	El Saso	0,95	100	0,95
Cáseda	7	87	El Saso	0,65	100	0,65
Cáseda	7	88	El Saso	0,39	100	0,39
Cáseda	7	89	El Saso	0,52	100	0,52
Cáseda	7	90	El Saso	0,42	100	0,42
Cáseda	7	93	El Saso	0,76	100	0,76
Cáseda	7	94	El Saso	0,26	100	0,26
Cáseda	7	96	El Saso	2,13	50	1,07
Cáseda	7	97	El Saso	1,06	100	1,06
Cáseda	7	98	El Saso	0,88	100	0,88
Cáseda	7	99	El Saso	1,63	100	1,63
Cáseda	7	100	El Saso	1,46	100	1,46
Cáseda	7	101	El Saso	1,87	100	1,87
Cáseda	7	102	El Saso	0,85	100	0,85
Cáseda	7	110	El Saso	0,91	100	0,91
Cáseda	7	111	El Saso	0,77	27	0,21
Cáseda	7	112	El Saso	2,06	27	0,56
Cáseda	7	116	El Saso	0,28	100	0,28
Cáseda	7	117	El Saso	0,60	100	0,60

Municipio	Pol.	Parcela	Paraje	Sup. (ha)	Partic. (%)	Sup. Comunal (ha)
Cáseda	7	119	El Saso	2,97	100	2,97
Cáseda	7	140	El Saso	1,32	100	1,32
Cáseda	7	142	El Saso	0,78	100	0,78
Cáseda	7	145	El Saso	0,24	100	0,24
Cáseda	7	146	El Saso	0,75	100	0,75
Cáseda	7	147	El Saso	3,68	100	3,68
Cáseda	7	181	El Saso	0,14	100	0,14
Cáseda	7	182	El Saso	0,31	100	0,31
Cáseda	7	183	Santa Fe	0,72	100	0,72
Cáseda	7	195	El Saso	0,34	100	0,34
Cáseda	7	196	El Saso	0,06	100	0,06
				TOTAL		27,58

“Zangoza II” eguzki instalazio fotovoltaikoa

Municipio	Pol.	Parcela	Paraje	Sup. (ha)	Partic. (%)	Sup. Comunal (ha)
Cáseda	7	134	El Saso	0,39	100	0,39
Cáseda	7	136	El Saso	1,28	37	0,48
Cáseda	7	137	El Saso	0,61	100	0,61
Cáseda	7	139	El Saso	1,26	100	1,26
Cáseda	7	153	El Saso	0,77	100	0,77
Cáseda	7	154	El Saso	3,76	19	0,71
Cáseda	7	155	El Saso	0,86	100	0,86

Municipio	Pol.	Parcela	Paraje	Sup. (ha)	Partic. (%)	Sup. Comunal (ha)
Cáseda	7	157	El Saso	0,55	100	0,55
Cáseda	7	158	El Saso	1,95	100	1,95
Cáseda	7	159	El Saso	0,36	100	0,36
Cáseda	7	161	El Saso	3,10	13	0,40
Cáseda	7	165	El Saso	0,96	100	0,96
Cáseda	7	166	El Saso	0,21	100	0,21
Cáseda	7	168	El Saso	0,37	100	0,37
Cáseda	7	175	El Saso	0,49	45	0,22
Cáseda	7	177	El Saso	1,85	100	1,85
Cáseda	7	184	El Saso	0,19	100	0,19
Cáseda	7	186	El Saso	0,81	100	0,81
Cáseda	7	197	El Saso	0,25	100	0,25
				TOTAL		13,2

Tauletan nabarmenduta agertzen diren partzelak Katastroan jasota daude soilik Komunalaren izenean. Gainerakoak Katastroan jasota daude, adierazten den partaidetzan, Kasedako

Udalaren Komunalaren izenean eta auzilari partikularrekin; honela daude jasota Partzelen Zeduletan:

Las unidades inmobiliarias relacionadas figuran inscritas en el Registro de la Riqueza Territorial de Navarra a nombre de los siguientes		
2	titulares en el concepto y participación que seguidamente se indica.	
1	Persona/s o entidad/es en concepto de	PROPIETARIO
	Apellidos y nombre o razón social	NIF/CIF % Par.
	COMUNAL DEL AYUNTAMIENTO DE CAS...	P3106800J 100,00
1	Persona/s o entidad/es en concepto de	LITIGANTE
	Apellidos y nombre o razón social	NIF/CIF % Par.


Ikusten ahal denez, Komunala dago jarrita jabearen kontzeptuan eta partzelaren azaleraren gainean dagokion partaidetzarekin % 100 kasu honetan, hau da, azalera osoa), titularrak auzilariaren kontzeptuan daude jarrita, eta ez dute jaso-

ta partzelaren gaineko ezein partaidetzaren portzentajerik.

Atal honek, egungo katastroa egiten lagundu baitzuen, jakitun denez une hartan hartutako erabakien inguruan, jakinarazten du partzela horiek

guztiak herri-partzelak direla eta partikularren eskubidea dutela horien gainean ekoizteko.

Ondoko irudian etorkizuneko Zangoza I eta Zangoza II eguzki instalazioek ukitutako partzelen egoera ikusten ahal da titulartasunari dagokionez.



2022ko azaroaren 15ean, Atal honek idazki bat bidali zion Kasedako Udalari, aurreko tauletan zerrendatutako partzelak herri-lurrak zirela adierazteko, eta, bertan adierazten zenez, Udala, Kasedako herri-ondasunen arduradun nagusia denez gero, herri-finketan egiten diren jarduketak guztietan pertsonatu beharko da, adierazteko horien titulartasuna berari dagokiola eta katastroan egun auzilari gisa ageri diren partikularrak ez direla finken jabeak, ezpada horien kultibadoreak.

Halaber, jakinarazten zenez, Kasedako udal mugartean dagoen problematika ikusita, desafektazioko administrazio espedienteak izapidetu aitzin ebatzi egin beharko da Zangoza I eta Zangoza II planta fotovoltaikoen proiektuak ukitutako lurzatieen titulartasunaren gaineko gatazka, eta egoera horri irtenbidea emateko indarreko legegidiarekin bat zeuden aukerak azaldu ziren..

Era berean, 2022ko azaroaren 18an, idazki bat bidali zitzaion Heliosolar SL enpresari. Horren

bidez, ikusita Zangoza I eta Zangoza II eguzki instalazioak jartzeko herri-lurrak lagatzeko eta desafektatzeko eskaeraren edukia (eskaera horretan desafektatu beharreko herri-lurtzat hartzen ziren Katastroan soilik Komunalaren izenean agertzen ziren partzelak –3,44 ha Zangoza I eguzki instalazioaren proiektuan eta 6,57 ha Zangoza II eguzki instalazioaren proiektuan–), jakinarazten zen akats bat egon zela etorkizuneko eguzki instalazioek ukitutako zituzten lurren titulartasunarekin, eta proiektuek ukitutako eta enpresak halakotzat ez hartutako herri-partzelen zerrenda erantsi zen.

2023ko urtarrilaren 16an, Lurraldearen Antolamenduaren Atalak Herri-lurren Atalari eskatu zion berri eman zezala, bere eskumenen esparruan, “0001-OT02-2022-000382 Parque solar fotovoltaico PSF Sangüesa I y II” deritzon espedientearen inguruan.

Erantzuteko, 2023ko ekainaren 1ean, Herri-lurren Atalak, bere eskumenen esparruan, proiektuek ukitutako partzelen titulartasunaren egoera azaldu eta ukitutako herri-partzelen zerrenda egin ondoren, kontrako txostena eman zuen 29,25 MWp/20,90 MWn potentziako Zangoza I eta 29,25 MWp/20,90 MWn potentziako Zangoza II instalazio fotovoltaikoak Kasedako udal-mugaratean jartzeko proiekturako.

Horrez gain, adierazten zenez, espediente horretan esku hartzen zuten foru-erkidegoaren administrazioiko gainontzeko unitateek bertan behera utzi beharko lituzkete kasuko prozedurak, harik eta ez den ebazten Zangoza I eta Zangoza II eguzki plantek ukitzen dituzten lurzati horien titulartasunari eta eskubideei buruzko auzi nagusia.

Lurralde eta Paisaia Zerbitzuko zuzendaria abuztuaren 21eko 315E/2023 Ebazpen bidez, baimena eman zen Zangoza I eta Zangoza II deritzen eguzki parke fotovoltaikoetarako.

Iragarkiak 2024ko martxoaren 26ko 64. NAO n argitaratu dira, jendaurrean jartzeko Zangoza I eguzki instalazio fotovoltaikoak eta Zangoza II eguzki instalazio fotovoltaikoak onura publikoa dutela zehazki adierazteko deklarazioak.

Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza Nagusiak alegazioak aurkeztu ditu eguzki instalazioek ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrendan argitaratutako partzelen titulartasunei lotuta, jo baitzuen titularren identifikazioa ez zela zuzena.

Ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrenda argitaratuan, egun Katastroan Kasedako Udalaren Komunalaren izenean eta auzilari partikularrekin jasotako partzelen titularrak honela zehaztuta daude: "titularren izena/Kasedako Udalaren Komunala".

Aurkeztutako alegazioetan azpimarratzean da partzela horiek herri-lurrak direla, eta honako hau proposatzen da: Alegazio hau onar dadila, eta onura publikoa ukatu, lurra premiaz okupatu behar izanari lotuta, eta ukapen hori egiten ez bada, arestian deskribatutako zerrendan erantsitako partzelak herri-partzelatzat hartu behar

dira, eta horien titularrek laborantza-aprobetxamendurako eskubidea baino ez dute edo, kasua bada, balio justuaren zenbatekoa Gordailuen Kutxa Orokorrean kontsignatu behar da, beste udalerri batzuetan (Corella edo Murchante, adibidez) egin den bezala, txosten honetan aipatzen diren partzelen kasuan.

4.- Udalak uste baldin badu ez direla herri-lur gisa sartu behar 7. poligonoko 65, 79 ½, 87, 90, 93, 97, 100, 101, 102, 116, 118, 129, 134, 137,145, 146, 151 B, 153, 155, 157, 158, 159, 165, 168, 177, 181, 183, 184, 183 ½, 186,195 eta 196 lurzatiak eta 6. poligonoko 83a, departamentuak zer lege-ekimen abiaraziko du herri-lur horiek babesteko?

Toki Administrazioaren uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak ematen eta esleitzen dizkion defentsa neurri guztiak hartuko eta hartzeko proposatuko ditu Departamentuak herri ondasunen esparruan. Erabakitzen ahalko du, besteak beste, 6/1990 Foru Legearen 110.3 artikuluan jasotako subrogazioa aplikatzea, herri-ondasunak kontserbatu, defendatu eta berreskuratzeko ahalak egikaritzeko toki erakundeek egikaritzen ez dituztenean, foru-lege horretan eta haren erregelamenduzko xedapenetan ezarritako moduan.

5.- Herri-lurrak direnez gero, horietako bakarren baten desafektazioa izapidetzea baimendu du, eta ez horiena guztiena, merkataritza-sozietateak onetsi eta Udalaren Osoko Bilkurak onetsi duten moduan?

Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera parlamentario hau osatzen duten aurreko galderen erantzunetan adierazi denez, ez du baimenduko Kasedako Udalaren Komunala katastroko titular gisa duten herri-partzelen desafektazioa soilik izapidetu dadila.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 21ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-24/PES-00210. Galdera, Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planten herri-lurrei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planten herri-lurrei buruz egin-dako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 3ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Zangoza I eta Zangoza II eguzki instalazioetako herri ondasunei buruz (11-24/PES-00210). Hona Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

1.- Lurzoru urbanizaezineko lurzatieko herri-lurren titulartasuna dela-eta Herri-lurren Atalak igorritako informazioa ikusita, Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak ziur al daki Kasedako Udalak desfektaziorako legezko prozedura hasi ote duen?

Ez. Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak ez du herri ondasunak desfektatzeko legezko prozeduretan esku hartzen.

2.- Ohartzen al da departamentua Kasedako planta fotovoltaikoen proiektuak ukitutako lurzati askoren ustezko titulartasun pribatua zer problema sortzen ari den? Zein izanen da ondorioa baldin eta proiektuan ez bada aitortzen lurzati horien herri-titulartasuna?

Mota horretako espedienteetan Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak baloratzen du ea proiektua Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Foru Legeak (LFOTU) ezarritako lurzoru urbanizaezinen araubidera egokitzen den, bai eta indarreko lurralde plangintzako eta hirigintza plangintzako tresnen xedapenetara egokitzen den ere, eta horren harira ebatzi egiten du baime-na eman edo ukatu behar den. Izapide horietan sektore-txostenak egiten dira lurralde faktoreen ondoriozko ezartzeko beste mugapen batzuk

identifikatze aldera, eta aipatutako hirigintza araudietatik eratorritakoak ere bai.

Balorazioa LFOTUren 119. artikuluan exijituta-k dokumentazioarekin bat egiten da, eta bertan ez da agertzen ukitutako lurren jabetzaren egiaz-tagiria. Ildo horretatik, baimentzeak ez du ez zeri-kusirik ez ukipenik eskatzaileak beste bitarteko batzuekin izaten ahal dituen egoera juridikoen gainean.

Zuzendaritza Nagusi honen iritziz, "proiektua" –hartzat jotzen bada berori baimentzeko prozedura– ez da lurren titulartasuna argitzeko markoa, eta ezin da sine die etenda geratu lurralde plangintzako nahiz hirigintzako ez den arrazoi batengatik, zeinak araudi eta prozedura propioak baititu gainera.

3.- Departamentuak zer erantzun dio Cásedo Udalar, Heliosolar, SL merkataritza-sozietateak sustatutako instalazio fotovoltaikoen instalaziorako herri-lurrak desfektatzeari buruzko alde aurreko kontsulta horri eta bere iritzia jakiteko eskariari dagokionez?

Oker edo hutsik ezean, espedienteak kudeatze-zeko dugun sistemari ez da Kasedako Udalaren aurretiazko ezein kontsultarik jaso galderaren gaiari buruz.

4.- Herri-lurren Atalaren arabera, "espediente honetan esku hartzen duten foru-erkidegoaren administrazioari gainontzeko unitateek bertan behera utzi beharko lituzkete kasuko prozedurak, harik eta ez den ebatzen Zangoza I eta Zangoza II eguzki-plantek ukitzen dituzten lurzati horien titulartasunari eta eskubideei buruzko auzi nagusia, bai hitzarmen baten bidez, bai eskubideen utzarazpen administratiboaren bidez". Departamentuak kontuan hartu al du Herri-lurren Atalaren eskari hori?

5.- Eskari hori kontuan hartu ez bada, zergatik ez da kontuan hartu?

Espedienteak jasota dagoen Lurraldearen Antolamenduaren Atalaren 2023 abuztuaren 8ko Ebazpen Proposamen Txostenetik ondorioztatzen denez, Herri-lurren Atalaren txostenean eskaera kontuan hartu zen (gogoeten atala 5.2), eta baztertu egin zen arrazoi honengatik: Herri-lurren Atal-lak 2023/06/01ean emandako ezezko txostenaren harira, kontuan hartu behar dugu ez duela lurralde motako bateraezintasunik adierazten; aitzitik, herri

titulartasuneko lurrek eskatutako jarduketa gauza dadin jarraitu beharreko izapideaz da mintzo, zeina hirigintza baimenaren aldiberekoa eta hartatik independentea baita.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, datuak babesteko legedian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jaso-

tako xedeetarako soilik erabiltzen ahalko da emandako edukia, eta betebeharra egonen da Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari men egiteko.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 21ean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00211. Galdera, Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planten herri-lurrei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planten herri-lurrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 3ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Zangoza I eta Zangoza II eguzki instalazioetako herri ondasunei buruz (11-24/PES-00211). Hona Nafarroako Gobernuak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Galdera zehatzei erantzun baino lehen honako hau argitu behar da:

Industriaren, Energiaren eta S4 Proiektu Estrategikoen zuzendari nagusiaren abuztuaren 25eko 112/2023 Ebazpen bidez aurretiazko administrazio baimena eman zitzaion Metka EGN Solar 29 SLU enpresari Zangoza I instalazio fotovoltaikorako (2023ko irailaren 22ko 199. NAO on argitaratu zen).

Industriaren, Energiaren eta S4 Proiektu Estrategikoen zuzendari nagusiaren irailaren 6ko 123/2023 Ebazpen bidez aurretiazko administra-

zio baimena eman zitzaion Metka EGN Solar 30 SLU enpresari Zangoza II instalazio fotovoltaikorako (2023ko irailaren 21eko 198. NAO on argitaratu zen).

2024ko martxoaren 5ean, Metka EGN Solar 29 SLUk eraikitzeke administrazio baimena eskatu zuen, bai eta instalazioak onura publikoa duela zehazki deklaratzeko ere, Zangoza I instalazio fotovoltaikorako.

2024ko martxoaren 5ean, Metka EGN Solar 30 SLUk eraikitzeke administrazio baimena eskatu zuen, bai eta instalazioak onura publikoa duela zehazki deklaratzeko ere, Zangoza II instalazio fotovoltaikorako.

Eskaera horiek une honetan izapidetzen ari dira.

Aurretiaz haxe adierazi behar da:

Sektore Elektrikoaren Legearen 54. artikulua onura publikoko deklaratzeko energia sortzeko instalazio elektrikoak, haiek ezartzeko behar diren ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzearen ondorioetarako eta bide zorra ezarri eta erabili ahal izateko.

Onura publikoa zehazki aitortuko da lege horretako 55. artikuluan ezarritako moduan.

Lege beraren 56. artikulua ezartzen duenez, onura publikoaren deklarazioak berekin ekarriko du, nolana ere, ondasunak okupatzeko edo ukitutako eskubideak eskuratzeko beharra, eta urgentziatzko okupazioa eraginen du, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikulua ondukoetarako. Era berean, dagokion baimena jasotzeko eskubidea

ekarriko du, onura publikoaren deklarazioan zehaztutako moduan, instalazio elektrikoa ezartzeko, igarotzeko edo okupatzeko Estatuaren edo autonomia erkidegoen jabari, erabilera edo zerbitzu publikoko edo ondareko lurretan, edo probintzia edo udalerriaren berezko edo erabilera publikoko lurretan, horien obra eta zerbitzuetan eta zortasun publikoko eremuetan.

1.- Ohartzen al da departamentua Kasedako planta fotovoltaikoen proiektuak ukitutako lurzati askoren ustezko titulartasun pribatua zer problematika sortzen ari den? Zein izanen da ondorioa baldin eta proiektuan ez bada aitortzen lurzati horien herri-titulartasuna?

Eraikitzekeko administrazio baimenaren eta onura publikoa zehazki deklaratzearen izapidearen markoan, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak txosten bat jaso du "alegazioak" izenekoak, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendari nagusiak 2024ko maiatzaren 10ean izenpetua. Txosten horrek hauxe ondorioztatzen eta proposatzen du:

"Alegazio hau onar dadila, eta onura publikoa ukatu, lurrak premiaz okupatu behar izanari lotuta, eta ukapen hori egiten ez bada, arestian deskribatutako zerrendan erantsitako partzelak herri-partzelatzat hartu behar dira, eta horien titularrek laborantza aprobetxamendurako eskubidea baino ez dute edo, kasua bada, balio justuaren zenbatekoa Gordailuen Kutxa Orokorrean kontsignatu behar da, beste udalerrri batzuetan (Corella edo Murchante, adibidez) egin den bezala, txosten honetan aipatzen diren partzelen kasuan".

Adierazi denez, oraindik ez da ebazpenik eman eraikitzekeko administrazio baimenaren eta onura publikoa zehazki deklaratzearen eskaeraren inguruan, horretarako txosten hau eta espediente-ko gainerako txostenak eta inguruabarrak aztertu behar baitira. Onura publikoa zehazki deklaratzeko izapidean Sektore Elektrikoaren Legeak 55. artikuluan xedatutako baldintzei jarraitu beharko zaie.

Halaber, adierazi behar da Nahitaezko Desjabetzearen Legeak jasotzen duela auziari egoten ahal direla desjabetutako ondasunen gainean, eta, esaten duenez, kasu horretan balio justua gordailutuko da Gordailuen Kutxa Nagusian, desadostasunaren zenbatekoan, agintaritzaren nahiz auzitegi eskudunaren aginduetan.

2.- Herri-lurren Atalaren arabera, "espediente honetan esku hartzen duten foru-erkidegoaren administrazio-ko gainontzeko unitateek bertan behera utzi beharko lituzkete kasuko prozedurak, harik eta ez den ebatzen Zangoza I eta Zangoza II

eguzki-plantak ukitzen dituzten lurzati horien titulartasunari eta eskubideei buruzko auzi nagusia, bai hitzarmen baten bidez, bai eskubideen utzarazpen administratiboaren bidez". Departamentuak kontuan hartu al du Herri-lurren Atalaren eskari hori?

Horren harira hauxe jakinarazi behar da: 2023ko urtarrilaren 16an, Lurraldearen Antolamenduaren Atalak Herri-lurren Atalari eskatu zion berri eman zezala, bere eskumenen esparruan, "Parque solar fotovoltaico PSF Sangüesa I y II" deritzon espedientearen inguruan.

Erantzuteko, 2023ko ekainaren 1ean, Herri-lurren atalburuak txostena eman zuen, Lurraldearen Antolamenduaren Atalari zuzendua, eta hauxe ondorioztatzen zuen:

"Halaber, espediente honetan esku hartzen duten foru-erkidegoaren administrazio-ko gainontzeko unitateek bertan behera utzi beharko lituzkete kasuko prozedurak, harik eta ez den ebatzen Zangoza I eta Zangoza II eguzki-plantak ukitzen dituzten lurzati horien titulartasunari eta eskubideei buruzko auzi nagusia, bai hitzarmen baten bidez, bai eskubideen utzarazpen administratiboaren bidez".

Txosten hori Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiaren espedientearen parte da; ez da Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak izapidetutako espedientearen parte.

Edozelan ere, Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak izapidetutako espedientea amaitutzat jo zen 315E/2023 Ebazpena mena zenean, abuztuaren 21ekoa, Lurralde eta Paisaia Zerbitzuko zuzendariak emana, zeinaren bidez baimena ematen baita Metka EGN Solar 29 SL eta Metka EGN Solar 30 SL enpresek sustatutako Zangoza I eta Zangoza II eguzki parke fotovoltaikoetarako.

3.- Eskari hori kontuan hartu ez bada, zergatik ez da kontuan hartu?

Jadanik adierazi denez, eraikitzekeko administrazio baimenaren eta onura publikoa zehazki deklaratzearen espedientearen Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiak izenpetutako txostena ("alegazioak" izenekoak) dago jasota.

Eskaera oraingoz ez da ebatzi, beharrezko izapideak amaitzearen zain baikaude. Ebazpena eman aurretik espediente-ko txosten eta inguruabar guztiak aztertuko dira, kontuan hartuta, aurretik esan denez, Sektore Elektrikoaren Legeak, Nahitaezko Desjabetzearen Legeak eta aplikatzekeoak diren gainerako arauak xedatutakoak.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 21ean

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-24/PES-00212. Galdera, Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planten herri-lurren defentsan Kasedako Udalak emandako erantzunari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin dolfo Araiz Flamarique jaunak Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planten herri-lurren defentsan Kasedako Udalak emandako erantzunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 3ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-24/PES-00212 galdera idatzia egin du, Zangoza I eta Zangoza II eguzki instalazio fotovoltaikeen proiektuak jendaurrean jartzeko izapidearen txostenari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1.- Departamentuak ziur al daki Kasedako Udala eguzki-planta horiek baimentzeko prozeduran pertsonatu ote den, adierazteko partikularren izenean ageri diren lurzatieko hainbat herri-titulartasunekoak direla udal katastroaren arabera?

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ez du jakin Kasedako Udala herri titularitasuneko gisa eta auzilari partikular batekin ageri diren katastro partzeletan agertu denik Zangoza I eta Zangoza II eguzki instalazioak ukitutako parzela horiek herri partzelak direla adierazteko.

2.- 2- Kasedako Udalak Herri-lurren Atalari igorri al zion eguzki-planta horiek ukitutako herri-lurzati zerrenda?

Planta horietako bakoitzari dagokionez udalak igorritako zerrendako lurzatiek zer azalera zuten guztira? Katastrokoarekin bat al dator?

2022ko azaroaren 15eko idazkiari erantzuteko, Kasedako Udalak, 2022ko azaroaren 18an, honako erantzun hau eman zuen:

Kasedako (Nafarroa) Udaleko alkate Jesus Esparza Iriarte jaunak, Kaseda, Aibar eta Zangoza udal-mugarteetan Zangoza I eguzki instalazio fotovoltaikoa eta bere ebakuazio azpiegiturak jartzeko (5107-CE) eta Kaseda, Aibar eta Zangoza udal-mugarteetan Zangoza II eguzki instalazio fotovoltaikoa eta bere ebakuazio azpiegiturak jartzeko (5108-CE) 1003/SCO/22 espedienteari dagokionez 2022ko azaroaren 15ean jasotako txostenari dagokionez,

Honako hau adierazten du:

Aipatutako proiektuen harira, 2022ko maiatzean, Heliosolar SL enpresak herri-lurrak desfektatu eta lagatzeko eskaera bat aurkeztu zuen Zangoza I eta Zangoza II instalazioak jartzeko. Eskaera hori idazki honekin batera bidali da.

Dokumentu hori espedientean sartu zen 2022ko maiatzaren 20ko osoko bilkuran, aztertu egin zen, eta Udalbatza jakitun geratu zen eskaera horri dagokionez, baina ez zen horri buruzko ezein erabakirik hartu herri-lurrak desfektatu eta lagatzeko eskaeraren harira; izan ere, lehenik eta behin, proiektu biek oraindik ez dituzte dagozkien eta, kasua bada, Foru Administrazioak egin behar dituen ingurumen- eta hirigintza-baimenak.

Kasedako Udalak badaki, kasua bada, herri-ondasunak desfektatzeko nahitaezko espediente izapidetu behar dela, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 140. artikulua ezarritakoarekin bat, eta

horrek, toki erakundearen erabakiaz gain, Nafarroako Gobernuaren onespena ere beharko duela.

Zangoza I eta Zangoza II instalazioak jartzeko herri-lurrak desafektatu eta lagatzeko eskaeran, enpresak aurkeztutakoan, hauxe dakar:

1.2. Proiektuaren beharrak


Heliosolar SLk lurraren beharrak aztertu ditu Kasedako udal-mugartean Zangoza I eta Zangoza II eguzki instalazioak jarri ahal izateko, eta 53,48 ha eta 48,71 ha dituzte, hurrenez hurren.

Zangoza I instalazioaren kasuan, 3,44 ha Kasedako Udalarenak dira, eta 50,04 ha beren partzelen errentamendua Heliosolar SLrekin izenpetu duten askotariko jabe partikularrenak dira.

Zangoza II instalazioaren kasuan, berriz, 6,57 ha Kasedako Udalarenak dira, eta 42,14 ha beren partzelen errentamendua Heliosolar SLrekin izenpetu duten askotariko jabe partikularrenak dira.

2.1. Jarduketaren metodologia

1- Udalaren Osoko Bilkurak aho batez hartutako hasierako erabaki bidez, aipatutako Nafarroako Toki Administrazioaren Foru Legearen 140.2 artikuluan ezarritako prozedurarekin bat, Zangoza I instalazioa jartzeko, desafektatzea, alokatzeko xedez, herri-lurretako 3,44 ha 7. poligonoko 65, 83, 87, 116, 145, 146, 181, 195 eta 196 partzeletan Kasedako udal-mugartean. Horien egoera zehatzaren planoa erabaki honen eranskinean jaso da.



Relación de terrenos afectados para Sangüesa I.

Udalaren Osoko Bilkurak aho batez hartutako hasierako erabaki bidez, aipatutako Nafarroako Toki Administrazioaren Foru Legearen 140.2 artikuluan ezarritako prozedurarekin bat, Zangoza II instalazioa jartzeko, desafektatzea, alokatzeko xedez, herri-lurretako 6,57 ha 7. poligonoko 134, 137, 155, 158, 159, 168, 177 eta 184 partzeletan Kasedako udal-mugartean. Horien egoera zehatzaren planoa erabaki honen eranskinean jaso da.



Relación de terrenos afectados para Sangüesa II.

3.- Ohartzen al da departamentua Kasedako planta fotovoltaikoen proiektuak ukitutako lurzati askoren ustezko titulartasun pribatua zer problematika sortzen ari den? Zein izanen da ondorioa baldin eta proiektuan ez bada aitortzen lurzati horien herri-titulartasuna?

11-24PES-00209 galdera parlamentarioari erantzutean azaldu zenez, proiektuak adierazten duena gorabehera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak herri-partzelatzat hartzen ditu nola katastroko titularra komunala dutenak hala katastroko titularra komunala duten eta auzilari partikular bat dutenak. Horrenbestez, proiektuak adierazten duena zernahi ere den, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak herri-ondasunak defendatzeko ekintzak gauzatu dituzte, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak esleitzen baitizkio.

4.- Departamentuaren ustez, baldin eta udalak ez badu ezer egiten lurzati horien herri-jabetza aldezteko, "jabetza" partikularra aitor liteke proiektu-

tu herri-lurzati gisa ageri ez diren horien kasuan?

Kasedako Udalak katastroko titularra komunala duten eta auzilaria partikular bat duten partzelen herri-jabetza defendatzen ez badu, eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ere ez badu defendatzen jabetza hori, "jabetza" partikularra aitortzen ahalko da.

Hala ere, egoera hori ez da gertatuko, herri-ondasunen inguruan Kasedako Udalak egiten duen defentsa eta proiektuak adierazten duena zernahi ere diren Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ondasun horiek direna defendatuko baitu: laborantzako eskubidea duen jabe partikular bat duten herri-ondasunak, alegia.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 21ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko konseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-24/PES-00215. Galdera, gizarte-bazterkeria larria dela-eta Nafarroan izapidetutako errenta bermatuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak gizarte-bazterkeria larria dela-eta Iruñean izapidetutako errenta bermatuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 10eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Oronoz Mugairiko hiriarteko autobus aldageltokiari buruz (11-24/PES-00215). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

Ornoz Mugairiko hiriarteko autobus aldageltokian gauzatu diren irisgarritasun neurri nagusiak hauexek dira: geltokiak dituen elementuan egokitzea, eta, bereziki, irisgarritasun irizpideak betetzeko eraikitako oinezkoentzako bideak, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioaren “espazio publiko urbanizatuetao irisgarritasunaren gida v.1.0” eta “Madrilgo Udalaren Espazio Publiko Urbanizatuetao Irisgarritasunaren Gida - 2022ko bertsioa” deritzen eskuliburuari jarraikiz.

Obra proiektuak jadanik jasotzen zituen irisgarritasuneko minimoak, eta obra fasean berrikusi egin da, elementu horietako batzuk egokitu eta hobetzeko, betiere irisgarritasun hori hobetzeko xedez.

Irisgarritasuna hobetzeko jarduketaren aurrekontua obra proiektuan dago banakatuta, bai eta ondorengoko ziurtagarritan ere, eta ez da aurrekontuan gehikuntzarik egon. Nola proiektua hala obra amaierako ziurtagiria eskuragarri daude gure departamentuan, interesekoa izatekotan. Hitzordua eskatzen ahal duzu eta dokumentuak eskuratzeko aukera emanen dizugu gure instalazioetan.

Obra egikaritu da adjudikazio aurrekontuko % 6 aurreztuta.

Proiektatutakoarekin batera, komun auto-garbigarria instalatu da autobus geralekuko erabiltzaileentzat, nahiz eta proiektuan aurreikusita ez egon, eta 62.200 euroko kostua izan du (BEZa barne). Jarduketa hori Oronozko Udalak eskatu zuen eta berebiziko osagarritzat jo zen aldageltokiak behar bezala funtzionatzeko, batez ere gogoran izanda autobusa erabiltzen ahal duten adinekoak eta desgaitasunen bat dutenak; izan ere, komun horrek gorpil-aukiaren erabiltzaileek behar dituzten tamaina eta elementu egokituak ditu, baita ahozko jarraibideak ere itsuei laguntzeko. Aurrez azaldu dugunez, jarduketa horrek ez du gehikuntza ekonomikorik ekarri adjudikaziorako.

Bestalde, mantentze lanetarako infiltrazio baltzara sarbidea emateko beharra aprobetxatuta, bide hori metro batzuk luzatu da, horri esker oinezkoentzako bide segurua izateko Bertizko Jaurerrira iristeko. Bide hori gasolindegia atzetik pasako da, parkea bisitatzen dutenentzako arriskua minimizatzen; izan ere, gaur egunera arte herriko gasolindegia aurretik pasatu behar zuten, eta errepideko bazterbidetik ibili oinezkoentzako ezein egokitzapenik edota seinaleztapenik gabe. Jarduketa hori proiektuko prezioetan egin da eta ez du obraren adjudikazio-aurrekontuan gehikuntzarik ekarri. Hobekuntza horiek egin ahal izan dira proiektuan jasotako zerbitzuen berritze batzuk ez direlako beharrezkoak izan proiektutako obra egikaritzeko.

Azken batean, irisgarritasun unibertsala lortzeko xedez, orok modu autonomoan eta aukera berdintasunean parte hartu ahal izateko, jarduketa hauek egin dira, beste batzuen artean, irisgarritasuneko hiru motetan sailkatuta:

– Irisgarritasun fisikoa:

- Irisgarritasunaren araudiak ezarritako gutxiengoaz gaindiko zabalera espaloietan.

- Oinezkoentzako bide jarraituak eta trazatuan oztoporik ez dutenak (zakarrontziak, luminariak, seinaleak eta abar lorategi eremuetara aldatu dira posible izan denean).

- Espaloiak beharrezko gurutzaduretan oinezkoentzako pasabideetarantz, irisgarritasunaren araudietan ezarritako maldak betetzeko.

- Komun irisgarria % 100ean: Komuna instalatu da, sarbidea espaloien mailan duena, eta sar-

bidearen nahiz barneko tamaina eta hesiak gurpilaulkia erabiltzaileentzako egokituak dituena.

- Bertizera sartzeko bide berria, trafiko eremuetatik bereizita, zeinera aldageltokiko espaloietatik iristen baita desnibelik eta oztoporik gabe.

– Irisgarritasun sentsoriala:

- Oinezkoen ibilbideak eta espaloietako behe-eremuak oinezkoen pasabideetarantz, askotariko kolore eta egituratako baldosa podotaktilekin eginak, zonaren eta itsuari helarazi nahi zaizkion jarraibideen arabera (takodun baldosa gorriarekin egindako oinezkoen ibilbideen gida eta oinezkoentzako pasabide beheeratu baldosa gorri botoidunen gida).

- Ahozko jarraibideak ematen dituen komuna, itsuek ez ezik, erabiltzaile orok erraz uler dezaten.

- Aldageltokiaren eremu osoan eta markesinan argiztapen egokia eta osoa ezartzea.

– Irisgarritasun kognitiboa:

- Seinale bertikalak, ibilgailuen trafikoa eta oinezkoen zirkulazioa antolatzeke. Batez ere piktogramak, erraz ulertzen laguntzeko.

Informazio panelak ere jarri dira aldageltokiaren eremu bakoitzaren erabilera ezagutarazteko, bai eta minusbaliantzat erreserbatutako plaza eta Bertizera sartzeko ibilbidearen adierazpena ere, testua eta piktograma konbinatzen dituzten seinale mistoak erabilia.

- Zoladura gaineko piktogramak, taxi geralekuak argi eta garbi adierazteko, bai eta aldageltokiaren eremuan ibilgailuen trafikoa antolatzearekin lotutako beste alderdi batzuk ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, datuak babesteko legedian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jasotako xedeetarako soilik erabiltzen ahalko da emandako edukia, eta betebeharra egonen da Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari men egiteko.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00216. Galdera, NEKP Basoaren proiektuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak NEKP Basoaren proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 10eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du —2024ko apirilaren 29ko 202402577 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan— NEKP Basoa deritzon proiektuaren hainbat alderdiri buruz (11-24/PES-216). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. NEKP Basoaren proiektua abian jarri zen Nafarroan karbono hustuleku ofizialen sorrera sustatzeko, basoberritzen lagundu ahal izateko

azken urteotako sute hondatzaileak pairatu behar izan dituzten udalerrietako udalantzako kosturik izan gabe. Erakunde pribatuek parte har dezatela lortu nahi da jarduketa horiek finantzatzeko beren emisioen zati bat konpentsatzearen truke. Ildo horretatik, lehenesten den irizpideetako bat da erraustutako lurak udaletako herri-lurak izan daitezela, aurretik baso katalogazioa dutenak, edota basoko gisa katalogatuak izatera pasatzen diren nekazaritza-lurak.

2. NEKP Basoa deritzon proiektuak sustatu nahi du erraustutako baso-lurak basoberritu daitezela, karbono hustuleku ofizial bihurtzeko, enpresa pribatuek finantzaketan parte hartzearen bidez; horrenbestez, proiekturik badago karbono hustuleku ofizialtzat katalogatua izateko betekizun teknikoak betetzen dituen eta departamentu eskudunaren baimena duena, aztertzen ahal da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-24/PES-00219. Galdera, BSH electrodomésticos España, SA enpresak jaso dituen laguntza eta onura fiskalei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak BSH electrodomésticos España, SA enpresak jaso dituen laguntza eta onura fiskalei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 10eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 20243540 irteera zenbakiarekin erregistratua, 2024ko maiatzaren 6an (1124/PES-219 galdera), BSH electrodomésticos España SA enpresak jasotako dirulaguntza eta onura fiskalen informazioari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Eskaeraren edukia hartu behar da kontuan: BSH Electrodomésticos España SA enpresak aplikatutako dirulaguntzak eta onura fiskalak. Horren arabera, eskaera egin duen parlamentariak, hain zuzen ere, dirulaguntzen eta onura fiskalen kontzeptuak bereizi nahi ditu, kalifikazio eta irismen desberdinak dituztelako.

Hala, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak 2.1 artikuluan ezartzen duenez, pertsona publiko edo pribatuen alde egindako diruzko xedapen oro da dirulaguntza, baldintza hauek betetzen dituen:

a) Dirua ez onuradunen, ez hirugarren pertsonen zuzeneko kontraprestaziorik gabe ematea.

b) Dirua emateko baldintza izatea xede jakin bat bete dadila, edo proiekturen bat gauzatu, jardueraren bat egin nahiz jokabide berezia har dadila (xede horiek jada burutuak izan daitezke nahiz oraindik burutu gabeak), edo inguruabar jakin batzuk gertatzea; eta onuradunari betebeharrak material eta formal batzuk ezartzea.

c) Finantzatzen den proiektu, ekintza, jokabide edo egoeraren helburuak onura publikoko edo gizarte intereseko jardueraren bat sustatzea edo xede publikoren bat sustatzea izan behar du.

Gainera, lege arau berak 2.3.b) artikuluan zehazten duenez, onura fiskalak ez dira dirulaguntzat hartuko.

Hori dela-eta, ohartarazten da erantzuna BSH Electrodomésticos España SA enpresak aplikatutako onura fiskalei buruz eskatutako informazioari buruzkoa baino ez dela, eta ez jaso ahal izan dituen dirulaguntzei buruzkoa. Zentzu horretan, onura fiskalen kontzeptua adiera zabalean interpretatu behar da, hau da, aipatu zergadunak izan zitzakeen kenkari edo salbuespen fiskalak barne. Erantzunak, hala ere, ez dio eragiten Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuetatik entitate horiek jaso ahal izan dituzten dirulaguntzei buruzko informazio eskaerari, eta halakorik ez du aipatzen gainera.

Antzeko beste informazio eskaera batzuetan erantzun dugun bezala, esan behar da Nafarroako Foru Komunitateko Zerga Administrazioak datuak lagatzeari buruzko gaia Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren (hemendik aurrera, TFLO) 105.1 artikuluan araututa dagoela; honako eduki honekin hasten da artikulua hori:

bere eginkizunen barnean zerga administrazioak lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak dira, eta aginduz kudeatu behar dituen tributuek edo baliabideak benetan aplikatzeko era-

biliko dira bakarrik. Ezin izanen zaizkie hirugarren-eri laga edo komunikatu.

Hori dela eta, lege-araudiak argi eta garbi xedatzen du Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean jaso dituen datuak isilpekoak direla eta zergen ikuspegitik garrantzitsuak diren helburuetarako soilik bideratu edo erabili daitezkeela, hau da, zergak aplikatzeko bakarrik erabili ahal izanen direla. Izaera erreserbatu horren arrazoia da zergadunek zerga araudia aplikatzeko eginkizuna eraginkortasunez bete dezan zerga administrazioari bidaltzen eta ematen dizkioten datuen pribatutasuna zaindu behar dela. Hala ere, erraza da ulertzea erreserba hori ezin dela erabatekoa izan, batzuetan tentsioa egon baitaiteke datuen pribatutasunaren eta baliabideen kudeaketa publikoan nagusi izan behar duen gardentasunaren artean. Horren arabera, bien arteko oreka bilatu behar da (pribatutasuna eta gardentasuna), eskubide indibidualak eta kolektiboak edo gizartea kaltetu gabe.

Oreka hori lortzera bideratuta dago aipatutako TFLOren 105.1 artikulua, eta, arauaren hasierako argitasuna eta sendotasuna gorabehera, lagapen edo jakinarazpen hori baimentzen duten zenbait salbuespen edo lege gaikuntza ahalbidetzen ditu.

Aipatutako 105.1 artikuluko salbuespen edo gaikuntzen artean ez dago eskatutako informazio eskaera egokitzen den inolako kasurik, eta, beraz, ezin da BSH electrodomésticos España SA enpresak azken hamar urteetan aplikatutako onura fiskalei buruzko informazio eman.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 24an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariaren erantzuna

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du BSH electrodomésticos España SA enpresak jasotako dirulaguntza eta onura fiskalei buruz (11-24/PES-00219). Hona Nafarroako Gobernuko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

1. Zer laguntza edo dirulaguntza jaso ditu azken hamar urteetan BSH electrodomésticos España SA enpresak egiturazko edo teknologiko inbertsioengatik, energia berriztagarrien bidezko sistemak ezartzeagatik, enplegua sortzeagatik,

prestatutzagatik, prestatutzak sistemarengatik, prebentzio sistemengatik, I+G+b-a laguntzeagatik, berdintasun plana egin edo garatzeagatik edo beste edozein kontzepturengatik?

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak, bere eskumenei dagokienez, jakinarazi du BSH electrodomésticos España SA enpresak (IFZ: A-28893550) azken hamar urteetan jasotako dirulaguntzak hauek izan direla:

Urtea	Testua	Zenbatekoa	Data
2014	IIP14538 ESP., I+G PROIEKTUETARAKO DIRULAGUNTZA	46.959,27	27,06.2014
2014	IIP14551 ESP., I+G PROIEKTUETARAKO DIRULAGUNTZA	27.647,46	30,10.2014
2015	IIP14702 ESP., I+G PROIEKTUETARAKO DIRULAGUNTZA	23.201,19	29,01.2015
2015	IIP14702 ESP., I+G PROIEKTUETARAKO DIRULAGUNTZA	17.885,52	29,10.2015
2018	G16-003 ESP., ENPRESA HANDIETARAKO DIRULAGUNTZA	58.000,24	30,01.2018
2021	2021-2024 bitartean I+G proiektu estrategikoak egiteko dirulaguntzen deialdia. IMITAZIO BIDEZKO IKASKUNTZAN OINARRITUTAKO ADIMEN ARTIFIZIALA DUTEN DOITASUNEZKO ROBOT INDUSTRIALAK	5.681,14	28,10.2021
2022	2021-2024 bitartean I+G proiektu estrategikoak egiteko dirulaguntzen deialdia. IMITAZIO BIDEZKO IKASKUNTZAN OINARRITUTAKO ADIMEN ARTIFIZIALA DUTEN DOITASUNEZKO ROBOT INDUSTRIALAK	1.594,13	07,09.2022

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-24/PES-00220. Galdera, NEKPren eta beste sozietate publiko batzuen webguneetako gardentasun-atalei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak NEKPren eta beste sozietate publiko batzuen webguneetako gardentasun-atalei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 10eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du –2024ko maiatzaren 6ko 20243541 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– NEKPren eta beste sozietate publiko batzuen webgunearen gardentasunari lotutako hainbat alderdiri buruz (11-24/PES-220). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Lehenengoa. Nafarroako Foru Komunitatearen sozietate publikoen webguneetan agertzen dira, erantzun hau ematen den egunean, sozietate publiko horien administrazio kontseiluen aktak, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 11. artikuluan ezartzen den informazioa eguneratzeko araubidearen arabera.

Zehazki, artikuluko horrek hauxe ezartzen du 1. puntuan:

a) Subjektuaren jardueraren gardentasuna bermatzeko zabaldu beharreko informazioa eta, gutxienez, titulu honen III. kapituluan jasotakoa, prestatu, eguneratu, hiru hilean behin gutxienez, eta zabaltzea modu iraunkorrean, egiazkoan eta objektiboan, norberaren egoitza elektronikoen edo web orriaren bidez.

Merkataritzako araudiaren babesean, administrazio kontseiluen aktak saioak amaitzean onesten dira, eta administrariei bidaltzen zaizkie administrazio kontseiluaren hurrengo saiorako deialdian. Horren ostean ezagutzera ematen dira webgunearen gardentasunari buruzko apartatuan.

Azken batean, kontseiluetako aktak eskuragarri jartzen dira sozietate publikoen webguneetako gardentasunaren apartatuan, behin administrazio kontseiluak horien idazketa baliozkotu ondoren, eta urrats hori administrazio kontseiluaren hurrengo bilkuran izaten da.

Bigarrena. Sozietate publiko bakoitzeko informazio publikoaren ardura duten unitateek eguneratzen dute informazioa sozietate publikoen webguneetako gardentasunari buruzko apartatuan.

Hirugarrena. Erantzun hau ematen den egunean, sozietate publikoetako administrazio kontseiluen aktak argitaratuta daude, 5/2018 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritako periodikotasuna erregimen espezifikoarekin bat.

Laugarrena. Nafarbide eta Bidean sozietate publikoek ez dute webgunerik une honetan. Webgunea izan eta berehala, eskuragarri jarriko dira administrazio kontseiluetako aktak.

Jasota utziko da emandako informazioaren konfidentzialtasuna, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 14. artikuluen babesean parlamentariak dokumentazioa eskatzeko duen eskubidearen markoan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-24/PES-00221. Galdera, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren aldaketa aztertzeke adituen mahaiari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren aldaketa aztertzeke adituen mahaiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. maiatzaren 10eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-24/PES-00221 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzea aztertzeke adituen mahaiari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohe-siorako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

1.- Nork osatzen du kontseilariak aipatutako adituen mahai hori?

Honako hauek osatu zuten kontseilariak aipatutako adituen mahaiari:

- Jesús María Ramírez Sánchez jauna, Zuzenbideko doktorea, espezialista zuzenbide administratiboan, hirigintzan eta lurraldearen antolamenduan

- María Urmeneta Fernández andrea, arkitekto hirigilea, Arkitekto hirigileen Nafarroako eta Euskal Herriko Elkartearen presidentea

- Carmen Ursúa Sesma andrea, biologoa, Nafarroako Gobernuaren funtzionario erretiratua

- María Gay Pobes andrea, Iruñeko Udalaren Hirigintzako Gerentziaren legegaria

- Sonia Puente Landazuri andrea, arkitektoa, Asturiasko Printzerriko Lurralde Antolamenduko eta Hirigintzako zuzendari nagusi ohia

- Ángel Marinero Peral jauna, arkitektoa, Gaztela eta Leóngo Etxebizitza eta Hirigintzako zuzendari nagusi ohia eta BOEn autonomia erkidegoetako askotariko hirigintza-kodeak argitaratzeko arduraduna

- José Antonio Marcén Zunzarren jauna, geografoa, Nafarroako Gobernuaren funtzionarioa eta Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusia

- Susana Turrillas Osés, arkitektoa, Nafarroako Gobernuaren funtzionarioa eta Paisaia eta Lurzoru Urbanizaezineko atalburua

2.- Zer egin du orain arte eta zertan da adituen mahai horren lana?

Talde horrek bere zeregina gauzatu du 2023ko abenduan eta 2024ko urtarrilean, eta hausnartzeko nahiz ideiak trukatzeko bost saio izan dituzte lurralde antolamenduko eta hirigintzako araudi eguneratu berri bat eratzeke beharra eta egokitasuna justifikatzeko, beste autonomia erkidego batzuek azkenekoz egindako nahiz onetsitako lurralde antolamenduko eta hirigintzako araudiaren analisi kualitatiboa egiteko eta aztertzeke arauak zer printzipio izan behar dituen, baita eratzeak izan behar dituen xedeak ere.

3.- Zer denbora-aurreikuspen darabil adituen mahai horrek?

Printzipioz, adituen mahai horrek amaitu du bere zeregina. Une honetan Departamentua ple-gua prestatzen ari da foru lege-proiektu bat egiteko nahitaezkoa den alde zuzeneko kontsulta-nahiz parte hartze-prozesua kontratatzeke.

Parte hartze-prozesu horretarako erabiltzen den metodologiaren arabera, litekeena da adituen beste mahai bat eratzea, baina horren osiera ez da definitu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, datuak babesteko legedian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jasotako xedeetarako soilik erabiltzen ahalko da

emandako edukia, eta betebeharra egonen da Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoari men egiteko.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00222. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle elkartu laguntzaileen deialdiari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle elkartu laguntzaileen deialdiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. maiatzaren 10eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00222). Horren bidez, informazioa eskatu du, jakin baitu Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuarekin zerikusia duten arazoak direla-eta, 2024-2025 ikasturteko irakasle beharrak betetzeko aurreikusitako NUPeko irakasle elkartu asistentzialen deialdia ez dela eginen. Hona Nafarroako Gobernuaren Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

– Zein zen lehiaketa horretarako aurreikusitako lanpostuen bolumena? Irakasle elkartu asistentzial bihurtzeko proposatzen diren LOU plazak 100 dira guztira.

– Medikuntza: 76 plaza

– Erizaintza: 18 plaza

– Psikologia: 4 plaza

– Biologia: plaza bat

– Fisioterapia: plaza bat

Beste hamar medikuntzako graduan, bi psikologiarako, bat fisioterapiarako, bat ingeniari-tza biomedikorako eta bat datuen zientziarako. Hala,

guztira 115 irakasle elkartu asistentzial plaza daude.

– Osasun Departamentuarekin zerikusia daukan zer arrazoik eragozten du lanpostu horien deialdia egitea?

Osasun Departamentuak erabaki du une honetan bakarrik behar-beharrezkoak diren deialdiak egitea, hau da, Medikuntzako seigarren mailan sortu berri diren plazetako deialdia, eta horietan irakasle elkartu asistentzial gisa sortzea erabaki da. Hitzarmen berrian jasota dago hori. NUParekin egindako bileretan, eta maiatzaren 2ko Batzorde Mistoan erabaki zen 2024-2025 ikasturtean behar-beharrezko lanpostuekin bakarrik hastea, konpentsazioak, antolaketa, asistentziaren inpaktua eta abar behar bezala finkatu ahal izateko, eta 2025/2026 ikasturterako guztiak deituta egoteko konpromisoa hartu zen. Legerian ezarrita dago hiru urtera arteko luzapena egiteko aukera dagoela (2027ko abenduaren 31ra arte), erabaki horrekin denbora erdian eginen dena.

– Aurreikuspen faltarik egon al da Osasun Departamentuan? Ez, bat ere ez. Gauzak lege mugen barruan poliki egitea da une honetan gomendagarriena, asistentzia inpaktua ahalik eta txikiena izan dadin. Hitzarmena 2023ko ekainean sinatu zen, eta ildo horretako bilerak eta lanak biziak izan dira orduetik. Erabaki horri eusten dioten eraginaren balorazio ekonomikoak egin dira eta asistentzia eragina aztertu da.

– Osasun Departamentuak noizko konponduko ditu lanpostu horien deialdia egitea eragotzi duten arazoak?

Ez da arazorik egon. Osasun Departamentuak gomendatutakoa (NUParekin adostutakoa) da programazio egokia, egoera honetan asistentzia eragina ahalik eta txikiena izan dadin.

– Horrek guztiak zer eragin izanen du lehiaketan parte hartu nahi zuten pertsonengan?

Kontratatuta dauden pertsonen luzamenduaren bidez jarraitzen dute LOU kontratu elkartuarekin, eta urtero berritzen dira. Lehiaketan parte hartu nahi zutenek itxaron egin beharko dute, edo, orain ditugunak berritzen ez badira, LOU kontratu elkartua lortu ahal izanen dute. Lehenengo puntuan

izendatu diren eta epe laburrean deituko diren hamabost plazak eskuratu ahal izanen dituzte.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 27an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00223. Galdera, AHTaren obrek Murugaingo baskoien herrixkako aztarna arkeologikoetan duten eraginari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak AHTaren obrek Murugaingo baskoien herrixkako aztarna arkeologikoetan duten eraginari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. maiatzaren 10eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-24/PES-00223 galdera idatzia egin du Muru Arterretako indusketa arkeologikoei eta AHTren tunela eraikitzeke obrei buruz. Hau da Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Murugain inguruan egiten ari diren esku hartze arkeologikoak honako proiektu honen jarduketan barruan sartzen dira: Abiadura Handiko Kantauri-Mediterraneo Korridorearen Plataforma Eraiki-

tzeko Proiektua. Tarteak: Tafalla-Campanas. Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendari nagusiaren urtarrilaren 15eko 6/2004 Ebazpenaren bidez onetsi ziren jarduketa horiek. Erregistroaren, Ondasun Higigarrien eta Arkeologiaren Ataleko teknikariek ikuskatu dituzte lanak.

Ez da inolako prospekzio arkeologikorik, azterlanik edota txostenik egin herri baskoien inguruan. Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusian Murugain inguruko aurretiko zundaketei buruzko txostena baino ez dago, 2024ko otsailaren 27koa.

Egungo egoeran ezin da erantzun zer eragin izanen duten AHTaren obrek, harik eta baimendutako lan arkeologikoak amaitu artean; beraz, goizegi da edozein balorazio, gogoeta eta komunikazio egiteko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 24an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

